



ALKIZAKO SORMENAREN KABIA

PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

Alkizako Udalak, herritarrekin eta herriko eragileekin batera, gogoeta prozesu luze bat gauzatu zuen herriaren etorkizunak nondik norakoa izan behar zuen definitzeko. Prozesu hartatik sortu zen **FAGUS ALKIZA HERRI PROIEKTUA**. Hiru dira bere zutabeak: natura (biodibertsitatea babestu eta areagotzeko helburuarekin), gizakia (garapen jasangarria lortzeko) eta kultura (landa-guneetan kultura sustatzeko asmoz). Azken horri lotuta sortu zen, hain zuzen ere, **SORMENAREN KABIA BEKA** 2018an.

Orain, Ur mara Museoaren gidaritzapean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker, **SORMENAREN KABIA EGONALDIAK** gauzatuko dira. Hala, arte-sorkuntza gainerako jakintza-diziplinekin uztartuko dituzten egonaldiak egingo dira Alkizan.

Uztaila eta abuztuan astebeteko iraupena izago duten hiru egonaldi burutuko dira Ur maran. Parte-hartzaileek eginez ikasiko dute: entzunez, hitz eginez, ikusiz, ukituz, pentsatuz, apurtuz... Esperimentatu, ikasi eta esperientziak partekatzeko ilusioa duen eta adinez nagusia den edonork izena eman dezake.

Elena Cajaraville eta Koldobika Jauregi, Ur mara Museoaren sortzaileak izango dira parte-hartzaileen tutoreak. Gainera, egonaldiak irauten duen bitartean, beste zientzia-alorretako adituen bisita izango dute, eta saio teorikoa eta praktikoa eskainiko dizkiete ikasleei.

Esperientzia honek aukera bikaina eskaintzen die sorkuntza eta natura maite dutenei, ingurune natural pribilegiatuan ikasi eta esperimentatu ahal izango baitute parte-hartzaileek.

Egonaldiak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira.

Esna gaudela egin dezagun amets!



Idoia Unzurrunzaga Alkizan, 2020ko Sormenaren Kabia Bekaren irabazleetako bat.
Argazkia: Unai Sorarrain



Kimia Kamvari Ur maran lanean. 2018ko Sormenaren Kabia Bekaren irabazleetako bat.
Argazkia: Unai Sorarrain

HELBURUAK

Diziplina arteko elkarrizketa sortzea:

Artista eta sortzaileak ez ezik, zientzialariak, pentsalariak, irakasleak eta jakin-nahia duten herritarrak elkarrizketa sortzaile baten partaide egitea.

Naturagune batean esperimintatzeko aukera eskaintzea

Sormenaren Kabia Egonaldiek aukera ematen dute Natura 2000 Sarean onartutako inguru paregabe batean sortzeko. Gainera, Ur mara museoak 11 hektareako espazio irekia du.

NORENTZAKO

Egonaldietan parte hartu dezake adinez nagusia den eta interesa duen edonork. Artea, natura eta erronka berriak maite dituzten pertsonentzat sekulako gozamina izango da!

ZER ESKAINTZEN DU EGONALDIAK

PRESTAKUNTZA

Koldobika Jauregi eta Elena Cajaravilleren gidaritzapean 5 eguneko ikasketa saio teoriko eta praktikoak.

BALIABIDEAK

Ur marako tailerreko tresnak eta materialak erabili ahal izango dituzte parte-hartzaileek. Denetariko tresnak dituen lantegia dago museoan bertan. Halaber, material desberdin askotako objektuak sortzeko aukera ematen duten makinak eta ekipamendua eskaintzen ditu Ur marak. Adibidez, erreprodukzio grafikorako makinak (torkuluak, prentsak eta abar) eta obra grafiko seriatua egiteko behar den azpiegitura guztia.

OSTATUA

Parte-hartzaileek Alkizan bertan ostatu hartzeko hainbat aukera izango dituzte.

ADITUEN IKUSPEGIA

Artearekin edota bestelako jakintza-alorrekin zerikusia duten adituen saio teoriko-praktikoak

NORK BERE KABUZ ESPERIMENTATU ETA IKASTEKO ASKATASUNA

Parte-hartzaileek 09:00etatik 12:00etara jasoko dituzte eskolak, bazkaldu arte. Une horretatik aurrera, bakoitzak bere denbora librea izango du. Tutoreen aholkularitza 16:00etan bukatuko da, baina nahi izanez gero, tailerra erabili ahal izango dute.

ARNASA HARTZEKO TOKIA

Bizi garen une zail hauetan, Alkiza leku ezin hobea da erlaxatzeko eta hausnartzeko. Leku asko topatuko dituzte irakurri, marraztu, sortu edo, besterik gabe, bakean atsedean hartzeko.



Kimia Kamvari Ur maran lanean. 2018ko Sormenaren Kabia Bekaren irabazleetako bat. Argazkia: Unai Sorarrain

METODOLOGIA

- Gehinez ere, 12 laguneko lan-taldeak osatuko dira.
- Taldea osatzeko gutxienez, 7 partaide beharko dira, bestela ikastaroa bertan behera geratuko da.
- Koldobika Jauregi eta Elena Cajaravillek, Ur mararen sortzaileek gidatuko dituzte ikasleak, taldean zein bakarka ere.
- Tutoreek gai bat proposatuko dute eta parte-hartzaileek hori aintzat hartuz garatuko dute euren lana, nola bakarka hala taldean ere.
- Egonaldian zehar beste jakintza-esparru batzuetako adituen bisita izango dute ikasleek. Gonbidatuak saio teoriko-praktikoa eskainiko die.
- Parte-hartzaileek hausnarketarako tarteak izango dute. Beraz, erronka berberaren aurrean hamaika bizipen eta irakurketa egiteko aukera izango dute.
- Lanerako material natural eta organikoak erabiliko dira, Ur mara bertakoak edota ingurukoak.
- Tailerrak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira.



Maria Andres Ur maran lanean. 2020ko Sormenaren Kabia Bekaren irabazleetako bat.
Argazkia: Unai Sorarrain



Elena Cajaraville eta Koldobika Jauregi.
Argazkiak: Ur mara Museoa

Koldobika Jauregi

Berrogeitik gora urte eman ditu harri, egur, metal eta paretak zizelkatzen artearen munduan bere tokia finkatu bitartean.

Txillidaren Zabalaga beka jaso zuen 1990ean eta Karl Muller mezenas alemaniarrekin lan egiteko aukera izan zuen Düsseldorf hirian. Egonaldi horrek eragin nabarmena izan du bere lanean eta Euskal Herrian lehendik ere bazuen sona, nazioarteko mailara zabaltzeko aukera ere eman dio. "Dantza" filma ospetsuaren diseinu zuzendaria izan zen 2017an. Ur mara Museoa zuzentzen du Elena Cajaravillerekin batera 2012. urtetik.

Elena Cajaraville

Egurra lantzeko, bitxigintzarako eta ehungintzarako aparteko talentua du Cajaravillek. Serigrafia ikasketak egin zituen eta bere hainbat lan Agata Ruiz de La Pradaren lantegian ikusgai egon ziren.

"Naturarekiko parapeloa den artea" proiektuan parte hartu zuen Alemaniako Insel Hombroich Museoan (1996-2000). "Dantza" filmaren zuzendari artistikoa izan zen. Egun Ur mara Museoko ekitaldiak kudeatzen ditu.

Sormenaren Kabia Egonaldiak 2021

Landuko diren gaiak eta parte hartuko duten adituak

Xehetasun guztiak: www.fagus-alkiza.eus atarian

MATERIA

Uztailak 25-31
Ana Galarraga
Zientzia dibulgetzailea



PAISAIA

Abuztuak 8-14
Arantza Aranburu
Geologian doktorea.



ESPAZIOA

Abuztuak 22-28
Itziar Garate Lopez
Astrofisikaria





ALKIZAKO SORMENAREN KABIA

KONTAKTUAK

Helbide elektronikoa:

sormenarenkabia@gmail.com

Xehetasun gehiago:

www.fagus-alkiza.eus

www.urmara.com

www.alkiza.eus



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gizarte Politikako
Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



Ur mara
museoa